



KONTRASTE MAHAI POLITIKOA

2020ko urriaren 15a

GAI-ZERRENDA:

1. Agurra
2. Eredu berriaren bideo-aurrekezpina
3. Kontraste Mahai Politikoa: zer da eta zelan funciona
4. Partehartzaileak
5. Kronograma
6. 2020ko ibilbidearen laburpena
7. Ereduaren Komunikazio-plana
8. Ordezkariek hautatzeko prozesua
9. Mahai sektorialak: proposamenen zerrenda
10. Enpresen Kontsulta Foroa: lehenetsitako proiektuen zerrenda
11. Hurrengo urratsak
12. Galderak eta iradokizunak

BERTARATUTAKOAK: (% 88,88)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	AUSENTZIAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Ostatuen ordezkaria	Javier Angulo	x		
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López		x	
Kirol-aisialdiko ordezkaria	Héctor García		x	
Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	x		
Merkatarien ordezkariak				
Getxo Enpresa	Elena Cantera	x		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Ostalaritzako ordezkariak				
Romo Bizirik	Jon Morán	x		
Neguri, Portu zaharra eta Kirol Portuko jatetxeak	Diego Castellanos	x		
Algortako tabernak	Jorge Alonso	x		
Getxo Enpresa	María del Fresno	x		
Alderdi Politikoak				



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Elkarrekin Podemos	Carolina Uribe	x		
EH Bildu	Ibon Rodriguez	x		
PSEE	Gonzalo Ayo	x		
PP	Fco. Javier Elorza	x		
EAJ /PNV	Iñigo Urkitza	x		
Getxoko Udala – Ekonomia Sust. Arloa				
	Mirene Zabalgoeazcoa	X		
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIA

Gai-zerrendako puntu guztiak jorratu dira, erantsitako dokumentuari jarraituz.

12.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Hona hemen bertaraturakoen ekarpenak:

Eh Bilduk dokumentuak euskaraz egoteko eta bilerak euskaraz egiteko aukera aztertzeko eskatu du.

Bilerak, ahal den neurrian, astelehen edo asteazkenetan egitea eskatu du EH Bilduk. Ez dago arazorik mahaiko gainerako parte-hartzaileen aldetik.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek mahaien proposamenak sei proiektu handitan biltzeko erabilitako irizpideari buruzko informazio zehatza eskatu dute, baita erabilitako lehenetsun-sistemari buruzkoa ere. Azaldu da teknikoki mahaiak proposatutako ekintzak multzotan multzokatu direla, honako hauek kontuan hartuta, besteak beste: antzeko edukiak, ekintzen arteko lotura zuzena, horien baterako garapenean inpaktu potentzial handiagoa, banakako garapenaren aldean...

Era berean, foroko ordezkariak lehenetsunak ezartzeko erabili dituzten puntuatu beharreko irizpide eta itemak jasotzen dituen fitxa erakusten da.

Erabilitako metodologia hobetzeko, mahai sektorialek proposatutako ekintza bakoitzaren puntuazioa/lehenetsuna proposatzen da, eta ez proiektuena; gai hori hurrengo aldietarako hartuko da kontuan.

Gogorarazten da Enpresen Kontsulta Foroaren lan-metodologia berria dela, testeatze-prozesuan gaudela, eta, beraz, erabat malgua dela hobekuntzak sartzea, egiten den lanak eta ahaleginak multzorako ahalik eta emaitzarik handienak lortzea ahalbidetzeko.

PP eta Elkarrekin Podemos alderdiek galdetu dute ea mahai sektorialek egindako proposamenen



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bat baztertu den eta/edo kanpoan geratu den proiektuak bildu eta lehenesteko udalaren irizpideak ez betetzeagatik; erantzun zaio mahai sektorialek proposatutako ekintza guztiak proiektuetan biltzeko ariketa teknikoa egin dela. Enpresen Aholku Foroaren ordezkariak dira proposamenak baloratzeko eta lehenesteko gaitasuna dutenak. Udal talde teknikoak aholkuak eman ditzake, baina inola ere ez du botorik ematen Aholku Foroaren erabakian.

Aurkeztutako proposamenen irismenari dagokionez, adierazten da proposamenen ehuneko handi batek epe laburreko egoera bat duela ardatz: 2020ko urria – 2021eko abendua. Gai horrek tokiko enpresen egoera larriari erantzuten dio, bai eta egoera hori arintzeko eta bizirauten laguntzeko jarduketak ezartzeko premia larriari ere.

Proposamenen eta/edo proiektuen edukiari dagokionez:

Tokiko kontsumoa sustatzeko kanpaina – GETXOBONO 2020: mahai sektorialetako eta talde politikoetako zenbait ordezkariak Getxo Bono 2020ren onuradun izan daitezkeen enpresa motak zabaltzea proposatzen dute, baita atxikitzeko beste deialdi bat irekitzea ere. Teknikoki baloratuko da egingarria den, kontuan hartuta denbora-epe txikia eta jarraitu beharreko administrazio-prozedura.

Bestalde, GetxoBonoa sustatzeko kanpaina areagotzeko proposamena kontrastearen Mahai Politikoko kide guztiei bidaltzea erabaki da, ekarpenak jasotzeko.

Espazioen hirigintza kudeatzea: Gainzako aparkalekua Gabonak baino lehen irekitzeko berariazko eskaera egiten da, Gabonetako erosketak errazteko. Lege-esparruaren barruan, Gabonetako kanpainan behin-behineko irekiera bat egin ahal izateko formulak bilatzea proposatzen da. (Adibidez: Gabonetako kanpainan aparkalekua doan irekitzea, zaintzarako langileak kontratatuz). Horren berri emango zaio arlo eskudunari, azter dezan.

2020ko Gabonetako Kanpainaren Proposamena: proposamen teknikoa Kontrasteko Mahai Politikoko kide guztiei helaraztea erabaki da, ekarpenak jasotzeko.

Getxo Moda: GetxoModa birdefinituko dela iragarri ondoren, ordezkari sektorialek galdetu dute ea utziko zaien horren diseinu berriari parte hartzen, eta teknikariek baietz erantzun dute.

Talde politikoetako ordezkariak balioa eman diote sektoreko ordezkariak elkarrekin lan egiteko egindako ahaleginari, eta eskerrak eman dizkiote; adierazi dute – Salbuespenen bat izan ezik – mahai sektorialek egindako proposamenak identifikatuta zituztela.

Ordezkari politikoaren eta sektorialen arteko harremana hobetzeko, harremanetarako datuak emango zaizkie parte-hartzaile guztiei.

Mahai sektorialetako ordezkariak eskertu dute teknikariek egindako ordezkariak, baina gogorarazi dute aurretik ezagutzen zutela eta espero zutela bilera honetan informazio gehiago jasotzea etorkizunean egingo denari buruz. Talde politikoei eta udalari eskatu diete akordioetara



heldu daitezela, bai eta udalak beren-beregi egingo dituen jarduketei buruzko informazioa eman diezaietela ere.

Mahai sektorialetako ordezkariak, bestalde, talde politikoetako ordezkariari eskatu diete proposamenak babestu ditzatela, baterako lanaren eredia babes dezatela eta akordio eraginkorrak egin ditzatela behar diren epeetan. Iraganeko mahaietan eta lan-saioetan parte hartu dute askok, eta ekintzara pasatzeko beharra dagoela azpimarratu dute. Horretarako, hainbat sektore ekonomikoren premietara egokitutako ekintzak jarri beharko litzateke abian, jarduera ekonomikoa egiten laguntzeko eta tokiko ekonomia-hunari eusten laguntzeko; are gehiago, krisi-egoera larria kontuan hartuta.

Mahai sektorialetako eta talde politikoetako ordezkariak adierazi dute eztabaidarako denbora labur geratu dela; gai hori hobetzen saiatuko gara hurrengo bileretarako. Foro honen ezohiko deialdiak egitea baloratuko da, proposatutako ekintzen/proiektuen nondik norakoen berri emateko eta horiei buruz eztabaidatzeko.

ERABAKIAK (Kontraste Mahai Politikoa; 2020/10/15):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea, bai eta mahai sektorialetako ordezkarien eta kontraste-mahai politikoaren harremanetarako datuak ere.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
2. Multzokatu gabeko mahai sektorialen ekarpenak zerrendatzea, eta horiek mahaietan duten babesa edo presentzia ikustea. Helburua: egindako taldearekiko koherentzia egiaztatzea eta ondoren lehenestea	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
3. Hurrengo bilerak astelehen edo asteazkenetan deitzea, ahal den neurrian 15 egun lehenago.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
4. Hurrengo bileretan euskararen erabilera bermatzea	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
5. GETXOBONO 2020 kanpaina: GetxoBonoren onuradun izan daitezkeen enpresa motak handitzea baloratzea; atxikitzeke beste deialdi bat irekitzea; GetxoBonoa sustatzeko kanpaina areagotzeko proposamena Kontraste Mahai Politikoko kide guztiei bidaltzea, ekarpenak jasotzeko.	Udal teknikariak	2020-10-30 baino lehen
6. Gainza aparkalekua: arlo eskudunari helaraztea formulak bilatzeko, lege-esparruaren barruan, eta Gabonetako kanpainen behin-behineko irekiera bat egin ahal izateko.	Udal teknikariak + Udal Gobernuak	2020-11-30 baino lehen



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

<p>7. 2020ko Gabonetako Kanpainaren Proposamena: proposamen teknikoa Kontraste Mahai Politikoko kide guztiei bidaltzea, ekarpenak jasotzeko.</p>	<p>Udal teknikariak</p>	<p>2020-10-30 baino lehen</p>
--	-------------------------	-----------------------------------